22 ARABA

Jugalez ibaiaren ur-jauzia

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

3,1 km

Ordu 1

· Oinez
· Errepide A-3126

Udalerria:
Zambrana
Hurbileko herria:
Berganzo

Ibaia:
Jugalez

6 MIDE

Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo.
Kontu handiz ibili ibaia zeharkatzean

EZ

677 m
232 m
569 m
130 m

Ingurumen-garrantzia

Jugalez ibaia San Leon menditik (Kantabriako mendikatea) hurbil jaio eta Ebro ibaian amaitzen da, Santa Cruz del Fierrotik gertu, hain zuzen. Ibaiaren goi ibarrean egoera onean mantentzen da ibaia, kontsolidatutako ibaiertzeko basoa duen igarobide batekin, nahiz eta arroaren beheko aldean, nekazaritzaren presioa dela-eta, ibaiertzeko basoa estutu egiten den. Arroaren goialdean sastrakak eta baso azpimediterraneoko eraketak dira nagusi. Kantabria-Toloñoko mendilerroaren mendi-adarretan, aldiz, haritz eta pagadi masak txilardi, larre eta belardi eremu txikiekin tartekatzen dira.



Jugalez ibaiaren ur-jauzia

Non dagoen eta nola heldu

Gaztelaniaz "Herrerias" izenaz ere ezaguna den Jugalez ibaiaren ur-jauzia Arabako Lurralde Historikoko hego-ekialdean kokatua dago, Kanpezu-Arabako Mendialdea eskualdean, Bergantzu herritik gertu, Zanbrana udalerrian. Herrira N-124 errepidetik sar gaitezke eta gero Zanbranara eta Santa Cruz del Fierrora doan A-3126 errepidea hartuko dugu.
Ibilbidea Bergantzu herrian hasten da. Herrigunea errepideari jarraituz zeharkatu ondoren, eskuinaldean dagoen azken saihesbidea hartuko dugu aparkaleku batera iritsi arte; bertan panel bat ikusiko dugu, ingurunearen ezaugarriak azalduz. Jugalez ibaia zubitik gurutzatuta, "Uraren ibilbidea" seinalearekin balizatutako bidezidorrari ekingo diogu. Aurrera jarraituko dugu ibaiaren ezkerraldeko bidezidorrean zehar eta bi koma zazpi kilometro inguru ibili ondoren A-3126 errepidera helduko gara. Orduan ezkerrera bira egingo dugu ibaia bilatuz eta, 100 bat metro ibili ondoren, ibairantz jaitsiko gara. Bertan "Uraren ibilbidea" adierazten duen seinale bat ikusiko dugu eta, horri jarraituz, ur-jauzia aurkituko dugu laster.
Ibilbidea urteko edozein sasoitan egin daiteke, baina euria egiten duen garaian eta urtze-aldien ondoren, errekaren emaria handiena denean, ur-jauziak modu paregabean ikusteko aukera izango dugu.

Deskargatu ibilbidea:

KML

GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:

Wikiloc

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Jugalez ibaiaren ur-jauzia

Jugalez ibaiaren ur-jauzia